

Ezagutu
zeureganatu
eraldatu

 **elkarranatz**

2015. urteko txostena

Bulegoak

Madariaga etorbidea 69
48014 Bilbao

Madalena Jauregiberri pasealekua, 2
851 P.K.
20080 Donostia San Sebastián

Tel.: 944 757 643
Faxa: 944 750 151
info@elkarbanatuz.org
www.elkarbanatuz.org

Zentroak

BAIKABA

Madariaga etorbidea 69
Beheko solairua
48014 Bilbao
Tel.: 944 474 499
Faxa: 944 750 151
baikaba@elkarbanatuz.org

HAZTEN

Madariaga etorbidea 81, atzealdea
[Sarrera, Mongan kalea]
Tel.: 946 426 447
Faxa: 944 750 151
hazten@elkarbanatuz.org

HIRANKA

Blas de Otero 39
[Sarrera, Arenazako leizea kalea]
48014 Bilbao
Tel.: 944 764 136
Faxa: 944 765 398
hiranka@elkarbanatuz.org

Laguntza-baliabideak

OINEZ SAREA

Gerizpe [Getxo]
Barakaldo
Bidean [Bilbao]
Ganeko [Bilbao]

ONDOAN

Bilbao

BIDANKA

Ollargan
Galdakao
Santurtzi

Inprimaketa: Garcinuño Comunicación Gráfica
Jon Arróspide, 11 - 2. solairua • 48014 Bilbao
Lege-gordailua: BI-697-2016



PAPER BIRZIKLATUAN INPRIMATUA

AURKIBIDEA

ESKERRAK	2
AURKEZPENA	3
NOR GARA	4 y 5
LAN- ETA LANBIDE-HEZIKETAREN ARLOA	6 y 7
EGOITZETAKO ESKU-HARTZEAREN ARLOA	8 y 9
HAURTZAROAREN, FAMILIAREN ETA OINARRIZKO LAGUNTZAREN ARLOA	10 y 11
NAZIOARTEKO LANKIDETZA	12
GIZARTE-PARTAIDETZA	13
ADMINISTRAZIOAREN ETA JARRAIPEN EKONOMIKOAREN ARLOA	14 y 15
URTEKO KONTUAK	16 y 17
LANKIDETZA-SAREAK	18
KOMUNIKATZEKO BIDEAK	19
IZAN GURE LAGUNTZAILE	20

ESKERRAK

Esker ona adierazi nahi diegu 2015. urtean lagundu diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei:

LA SALLE SAREA



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Kristau Eskoletako Anaiak - FSC

ERAKUNDE PUBLIKOAK



Bilboko Udala Berdintasun, Gizarte Ekintza Saila



Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Gizarte Politiketako Sailburuordetza



Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua



Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa

ENTITATE PRIBATUAK



Banco de Alimentos de Bizkaia
Bizkaiko Elikagaien Bankua



Fundación Antonio Menchaca de la Bodega



Carmen Gandarias Fundazioa



Grupo Norte Fundazioa



Víctor Tapia eta Dolores Sainz Fundazioa



O"La Caixa" Gizarte Ekintza



Caixa Proinfancia Programa



Puntos de Formación Incorpora Incorpora Prestakuntza Guneak

Orobat adierazi nahi diegu esker ona lagundu diguten bazkide, kolaboratzaile eta boluntario guztiei.

“Bidezkoa eta beharrezkoa da. Ezagutu, interpretatu, eraldatu”. Aurten hitz horiek mugitzen gaituzte justiziaren alde eta denon eta denontzako gizarte bat eraikitzearen alde borrokatzeko.

Bidezkoa eta beharrezkoa da. Ez da apeta bat, ez da moda bat, ez da itxura ona soilik duen gauza bat. Justizia-kontu bat da. Gaur egun, pertsona asko dira gure ingurunean urrakortasun-egoeran eta gizarte-bazterketako egoeran daudenak eta beren bizitza, autonomia eta enplegarritasuna hobetzea behar dutenak. 2015ean, enplegu-eskaintza gehiago izapidetzeko, lan-kontratuak lortzen laguntzeko eta pertsonen enplegarritasuna hobetuko dien prestakuntza emateko borrokan jarraitu dugu Elkartean lan- eta lanbide-heziketaren arloan.

Ezagutu. Ezin dizkiegu begiak itxi inguruan etxebizitzarik gabe, baliabiderik gabe, erlazio-sarerik gabe eta gizarte barruan sentitzeko aukerarik gabe bizi diren pertsona askok jasaten dituzten bizi-baldintzei. 2015ean, Egoitzetako esku-hartzearen arloak hainbat proiektutan jarraitu du lanean, emantzipazio- eta autonomia-prozesuetan lagunduz hezkuntza-kontuetan.

Interpretatu. Gizarte bidezkoago bat eraikitzen lan egin nahi badugu, ezin gara geratu ikuste edo ezagutze soilean. Geure gain hartu eta geure egin behar ditugu inguruko premiak. 2015ean, Haurtzaroren, Familiaren eta Oinarrizko Laguntzaren arloan urrakortasun-egoeran dauden ume eta familiei laguntzen jarraitu dugu haien egoeraren zioak zein diren ulertzeko eta hautemateko eta haien aldatzeko behar diren erantzunak ezartzen laguntzeko.

Eraldatu. Badakigu mundu bidegabe batean bizi garela, gure betebeharra da mundu hori eraldatzen ahalegintzea. Baina ez gaude bakarrik. Horregatik, Elkartean oso garrantzitsuak iruditzen zaizkigu gizarte-partaidetzako jarduerak, sentsibilizazio-jarduerak eta nazioarteko lankidetzako jarduerak. Elkarrekin gehiago eta hobeak garela uste dugulako. La Salle Hezkuntza Sareko kide gisa, lan koordinatuan sinesten dugu eta gizarte elkartuago bat eraikitzea Hirugarren Sektoreko sareetan lan eginda ere lortzen dela sinesten dugu.

2015ean, gainera, Zuzendaritza Batzordea berri da. Lerro hauen bidez, benetan eskertu nahiko genieke batzordea uzten duten kideei urte hauetan guztietan izan duten arduraldia, konpromisoa eta eskuzabaltasuna.

Azkenik, Zuzendaritza Batzordetik eskerrak eman nahiko genizkizueke, beste behin ere, proiektu hau ahalbidetzen duzuen pertsona guztioi. Gizarte bidezkoago bat eraikitzeko zuen arduraldiak, ahaleginak, ilusioak eta bokazioak mundu berri bat posible dela sinetsarazten digute.

Zuzendaritza Batzordea


NOR GARA

Elkarbanatuz irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta La Salleko Ekintzen Sareko partaide da. Sare horrek, batez ere, hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren arloan egiten du lan.

Onura publikoko izendapena jaso du, eta partaidetza eta gizarte-aldaketa bultzatzen ditu.

Oinarri sozial sendoa du, 76 bazkide eta laguntzaile baino gehiago eta 66 boluntario dituen aldetik. Horien guztien bidez gauzatzen da elkarte-proiektua.

Lantalde profesionala du Elkarbanatuz elkarteak, 37 pertsonak osatua. Horietatik, 31 emakumezkoak dira, eta 6 gizonezkoak.



2015. urtean, honela osatu da zuzendaritza-batzordea eta zuzendaritza-taldea:



Etorkizuneko urratsak:

Misioa

La Salleren hezkuntza-misioan parte hartzen du Elkarbanatuz elkarteak, eta lanean ari da gizarte bidezko bat eraikitzeko, gizarte-aldaketaren bidez eta gizarte-egoera ahulean daudenei gizarte-heziketako laguntza emanez.

Ikuspegia

Gizarte-erakunde salletar eraldatzailea izatea, erreferentziazko lana egingo duena egoera ahulean dauden pertsonekin gizarte-heziketako lana egiten.

2015. urtean,

1450

personak hartu du parte gure programetan

550

personak baino gehiagok hartu du parte zuzeneko laguntza-prozesuetan

750

personak baino gehiagok hartu du parte sentsibilizazio-ekintzetan

150

personak baino gehiagok hartu dute parte arreta-prozesuetan Nazioarteko Lankidetzaren programen bidez.

500

Gainera, lagunek baino gehiagok jarraitzen digute sare sozialen bidez.

LAN- ETA LANBIDE-HEZIKETAREN ARLOA

Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta enplegarritasuna hobetzeko helburuarekin, gure saila gizarte- eta lan-ingurunean izaten diren premia eta baldintza aldakorretara etengabe egokitzeko dinamikan ari da lanean.

Gure erakundeko beste sail batzuekin egiten ditugun ezagutza- eta esperientzia-trukaketak baliatuz eta enplegurako esku-hartzearen, prestakuntzaren eta orientazioaren bidez, pertsonak gizarteratzen lagundu eta bideratzen dugu, horien prozesu pertsonalen plangintzan eta ondorengo garapenean eta ebaluazioan parte hartzea sustatuz.

2015eko EMAITZA NAGUSIAK:



Urtean zehar 78 enpresarekin aritu gara lankidetzan, eta aurreko urteetako jarduera-sektoreak zabaltzea lortu dugu.



% 250eko hazkundera izan da lan-baimena lortzeko eskaintzen izapidetzean.

Egungo lan-merkatuaren testuingurua konplexua izan arren, lortutako kontratu-kopurua handitzen jarraitzen dugu, 42raino 2015 osoan.



Urtean zehar 48 sentsibilizazio-tailer egin dira Hirankan. Horrela, Garapenerako Hezkuntzaren lan-tresna gisa finkatu dira.

La Salle Sareko 4 taldek bisitatu gaituzte 2015ean.



Prestakuntzako 24.000 ordu eta praktiketako 6.000 ordu kudeatu ditugu.

Hirankaren pertsona erabiltzaileak 25 talde-jarduera prestatu, garatu eta koordinatu dituzte.

Enplegu Orientaziorako Talde Tailerrak finkatuta daude gure urteko plangintzan.





Hiranka – Gizarteratze Zentroa

Hiranka zentroa Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzen da gizarteratze-prozesuak sustatzen kalteberatasun-egoeran eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen laneko plan indibidualen bidez. Lan hori pertsonen premietara egokitutako gizarte-hezkuntza arloko askotariko tailerrekin osatzen da, haien autonomia eta parte-hartzea sustatzeko helburuarekin. Besteak beste, pertsonen informazioan, lan-orientazioan, trebetasun sozialetan, hizkuntzan eta aisia hezitzaile baten garapenean behar adinako maila lor dezaten lan egiten dugu, betiere kontuan hartuta haien parte-hartzea sustatu behar dela haien bizitzaren garapenean nahiz gizarte arloan.

Gizarte-hezkuntza arloko lan hori beste erakunde batzuekin, baliabide propioekin eta ingurunekoekin lankidetzan egiten da. Lan integrala da, pertsonentzat eta pertsonekin egiten dena.



Hazten – Lanerako Prestakuntza Zentroa

1. mailako Profesionaltasun Ziurtagirietan oinarritutako prestakuntza-saioak ematen ditugu Ostalaritza, Turismo eta Garbiketa arloan, Lanbiderekin, La Caixa Gizarte Ekintzaren Incorpora Prestakuntza Programarekin, Grupo Norte Fundazioarekin eta La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarearekin lankidetzan. Prestakuntza oso praktikoak dira, eta ekintzailetza-arloko eta enplegua bilatzeko oinarritzko tresnen arloko prestakuntzarekin osatzen ditugu. Aurten, zeharkako gaitasun batzuk ere landu ditugu, esaterako, irudia zaintzea, talde-lana, adierazpenezko komunikazioa, gatazkak ebaztea, etab.

Garrantzitsua da nabarmentzea gurekin lankidetzan aritzen diren enpresekin dugun harreman ona. Horrek erraztu egiten du ikasleek praktika ugari egitea eta haiek gure prestakuntzak.



Aurkibide - Gizarte- eta lan-orientabiderako bitartekaritza-zerbitzua

Aurkibiden, La Caixaren Incorpora eta Laneratzeko Laguntza programekin lankidetzan aritzen gara enplegua bilatzen ari diren eta aurkitzeko arazoak dituzten pertsonen lagunduz ibilbide pertsonalizatua egiten. Haien enplegarritasuna hobetuko duten ekintzetarantzko orientazio pertsonalizatua ere eskaintzen diegu.

Sektoreari buruz dugun ezagutzari eta hainbat eta hainbat enpresarekin dugun harreman onari esker, enpresek enplegu-arloan dituzten premiak ezagutzeko aukera dugu eta hurbiltasunez eta eraginkortasunez kudea ditzakegu haien eskaerak.

Zerbitzuaren arrakastaren gakoa artatzen ditugun pertsonen, lan-arloan dituzten gaitasunen eta beren langile-premien berri ematen diguten enpresen jakineko premien ezagutza zehatza da.

EGOITZETAKO ESKU-HARTZEAREN ARLOA

Egoitzetako esku-hartzearen arloa egoitzetako 2 hezkuntza-programak osatzen dute: Emantzipaziorako Egoitza Programak eta Gizarteratzeko Egoitza Programak. Pertsona erabiltzaileen bizi-baldintzetan etengabeko hobekuntza lortzea da bi programen helburua.


2015ean, honako hauek landu dira etengabeko hobekuntzarako lerro gisa: baliabideak erabiltzaileen premia aldakorretara eta arazo espezifikoentara egokitzea.

2015eko EMAITZA NAGUSIAK:

Arloak 39 egoitza-plaza eskaintzen ditu.




Artatutako 43 pertsonarekin egin diren egoitzetako 3 hezkuntza-proiektutarako hiru talde finkatu dira.



2015ean beren prozesuak amaitu dituzten pertsonen % 100ek bere helburuak bete ditu edo hein batean bete ditu (% 67k bete ditu eta % 33k partzialki bete ditu).



Gure esku-hartzeen xede diren eta gurekin batera esku hartzen duten gazteen emantzipaziorako egiten dugun lanari buruzko hausnarketa.



2015ean 756 bisita egin dira egoitza-baliabideetara Oinez eta Bidanka programen barruan.



Ondoan proiektu aitzindaria da emantzipazio-prozesuan dauden emakume gazteen gizarte-hezkuntzaren arretarako sektorean.



Bidanka – Gizarteratzeko egoitza-programa

Bidanka aldi baterako egoitza-sarea da, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan garatzen dena. 12 plaza eskaintzen ditugu 3 etxebizitzatan banatuta.

Erabiltzaileek gizarte-hezkuntza prozesu pertsonalari eta taldekoari jarraitzen diote, erreferentziako pertsona hezitzaile batek lagunduta eta hezkuntza-taldearekin koordinatuta, gizartean txertatzeko prozesuan autonomia bideratzeko helburuarekin.

2015ean arloko pertsonen parte-hartzea indartu da, erakunde barnean nahiz kanpoan, prestakuntzetan, ikastetxeetako sentsibilizazio-hitzaldietan eta sentsibilizazioko eta gizarte-salaketako ekintzetan parte hartuz.



Oinez – Gazteak emantzipatzeko egoitza-programa

Oinez egoitza-baliabideen sarea Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan garatzen da eta 20 plaza ditu 4 etxebizitzatan banatuta.

Gaztea bere prozesuaren protagonista izango den eta heldutasun- eta autonomia-maila onena lortzea xede izango duen laguntza integralaren bidez, pertsonak beren eguneroko bizitzako eskakizunei beren kasa eta arrakastaz aurre egin ahal izatea sustatzen dugu.

2015ean pertsonen parte-hartzea sustatzen jarraitu da, pertsona horiei ahotsa emanda. Ahots hori entzutea eta programaren araudian eragina izan dezan ere sustatu da eta, kanpoan, berriz, eremu politiko-sozialetan eragina izatea sustatu da.



Ondoan – Gazteak emantzipatzeko egoitza-programa

Ondoan intentsitate handiko egoitza-baliabidea Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan garatzen da eta 7 plaza ditu.

Programaren helburua egoitza-ingurune batean arreta integrala eskaintzea da, gazteei garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozial egokia gauzatzeko aukera emango dien babes-eremu bat ahalbidetuz eta, horrela, laguntza eta haien premiei egokitasunez eta eraginkortasunez erantzuteko behar diren gizarte-hezkuntzako baliabideetarako sarbidea emanez.

2015ean arreta indibidualizatua funtsezkoa izan da nesken prozesuei lagun egiteko, gazte horien doikuntza psiko-afektibo egoki baten garapenean arreta berezia jarritz.

HAURTZAROAREN, FAMILIAREN ETA OINARRIZKO LAGUNTZAREN ARLOA

Haien eskubideen babesak eta haien autonomiaren sustapenak gidatuta, pertsonei lagunduko diegu, bereziki haurrei eta familiei, kalteberatasun-egoeran jartzen dituzten kausak detektatzen, eta parte hartuko dugu, beste erakunde batzuekin koordinatuta, egoera hori prebenitzeko eta/edo konpontzeko erantzun posibleak inplementatzen.

Askotariko zerbitzu, zentro eta programen bidez, integralak eta gizarteratzaileak izan nahi duten gizarte-hezkuntzako ibilbideetan esku hartzen dugu laguntzen dugu. Inguruneke pertsonak inplikatzeko ahalegintzen gara, sentsibilizazio eta partaidetza komunitarioko jarduerak eginez. Eta ez dugu ahazten gizarte global bateko kideak garela, beste herrialde batzuetako haurtzaroaren eta familiaren errealitate desberdinetara hurbilduta.

2015eko EMAITZA NAGUSIAK:

Aurten 79 umek eta nerabek hartu dute parte Aste Santuko, udako eta Gabonetako hiri-udalekuetan.



61 adingabek (27 neskak eta 34 mutilek) hartu dute parte eskola-laguntzako eta zentro irekiko jardueretan.



261 harrera berri (126 emakume eta 135 gizon) egin ditugu erakundeetan.



125 erabiltzailek (65 gizon eta mutilek eta 60 emakumek eta neskek) laguntzak jaso dituzte 2015ean.


66 pertsonak egin dituzte boluntario-ekintzak elkarrean.



694 jarraipen (374 gizon eta 320 emakume) egin zaizkie pertsona erabiltzaileei, gizarte-administrazioaren arloko gaiei buruz informatzeko, orientatzeko eta laguntzeko.



490etik gora gazterengana iritsi gara ikastetxeetan egindako sentsibilizazio-saioen bidez.





Baikaba – Haurrentzako eta familientzako gizarte- eta hezkuntza-zentroa

Umeei eta nerabeei laguntzen diegu haien garapen akademiko, personal, familiar eta sozialean. Laguntza hori tutoretzen bidezko jarraipen indibidualaren bidez nahiz talde-jarduerak sortzen duten aberastasunaren bidez egiten da. Eskola-laguntzako, zentro irekiko, hiri-udalekuetako eta gurasotasun positiboko tailerretako jardueren bidez gizarte-hezkuntzako arreta eskaintzen dugu, alde batetik, autonomia eta, bestetik, parte-hartzea indartu nahi duena. Aurten bi alderdi horiek sustatu ditugu, alde batetik, Arreta Plan Indibidualean egindako hobekuntzen bidez; bestetik, antzemandako arrisku-egoerei erantzun eraginkorra emateko aukera ematen diguten jarduketak-protokoloak prestatuta; eta, azkenik, adingabeekin batera lan-guneak antolatuta, bazterketa- edo inklusio-egoeretara eramaten gaituzten kausa eta ondorioei buruz hausnartzeko eta gure inguruneko gizarte-mugimendura hurbiltzeko. Hori guztia “La Caixa” Gizarte Ekintzaren,¹ Bilboko Udalaren, La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen sarearen, eta Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioaren babesarekin.

Harrerarako eta gizarte- eta administrazio-jarraipenerako zerbitzua

Zerbitzu horren bidez harrera egiten diegu elkartera lehen aldiz hurbiltzen diren pertsoneri, eta haien egoeraren diagnostikoa eta balorazioa egiten dugu, orientatzeko edo gure zentro, programa edo zerbitzuren batera eramateko. Arretako denbora zehar, pertsona horiek informatu eta orientatu egiten ditugu eta lagundu egiten diegu egin beharreko administrazio-kudeaketetan, esaterako, atzeritarren identifikazio-dokumentuak eskatzen, laguntzak eskatzen, erroldatzea aldatzen eta abar.

Laguntzak kudeatzeko zerbitzua

Zerbitzu horri esker, premia handiena duten erakundearen erabiltzaileei erakundearen egiten ari diren prozesuarekin aurrera jarraitzeko eta haien oinarritzko premiak gogobetetzeko behar dituzten laguntzak ematen dizkiegu. Emandako laguntzek honako premia hauek estaltzen dituzte: elikadura, higiena, arropa, adingabeen eskola-ekipamendua, osasunaren zaintzatik eratorritako gastuak edo alokairua ordaintzeko laguntza. Victor Tapia Fundazioak, Gandarias Fundazioak eta Antonio Menchaca de la Bodega Fundazioak babestutako zerbitzua.

Sentsibilizazio-programak

Programa horren helburua balioak sustatzeko sentsibilizazio-jarduerak egitea da, besteak beste, solidaritatea eta kultura-aniztasunarekiko errespetua, herritar kritikoak eta konprometituak sustatuz. Helburu hori lortzeko, alde batetik, tailerrak egingo ditugu ikastetxeetan ikasleekin eta irakasleekin. Tailer horietan gogoeta egingo dugu migrazio-prozesu bat bizi izan duten boluntarioekin batera. Boluntarioek lehen pertsonan kontatuko dute gizarteratzearen, Giza Eskubideen eta boluntariotzaren inguruan bizi izandako esperientzia. Bestalde, urte honetan zehar, zurrumurruen aurkako agente gisa, estereotipo eta aurreiritziei buruzko diagnostikoa txertatu dugu ikasleen pertzepzioak hobeto ezagutzeko asmoz, gero aniztasuna errespetatzen duen bizikidetzaren ahalbidetzen duten dinamikak hobeto prestatzeko. Gainera, lehen aldiz egin dugu kultura-artekotasunari buruzko tailerra ikasle gazteekin, erronka berriak planteatuz. Programa horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren babesa dute.

¹ Programaren helburua guraso eta seme-alaben artean pobrezia transmititzeko zirkulua etetea da, kalitateko hezkuntza-aukeretarako sarbidea bermatuz, eta eskola-laguntza, arreta psikologikoa, hezkuntza ez-formala, denbora librea eta gurasotasun positiboa emanez.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA



2013-2016 Plan Estrategikoko 4. erronkari erantzunez, hain zuzen ere, gure proiektuekin lotura duten ume eta gazteek pairatzen dituzten bidegabekeria-egoerak eraldatzeko borrokatzen diren nazioarteko, gizarte-hezkuntzako eta garapenerako proiektuetan lankidetzan aritzeko erronkari, alde batetik, gure proiektuetan Garapenerako Hezkuntzaren zeharkakotasuna aplikatzen jarraituko dugu eta, bestetik, Hogar Lerchundi Marokoko Tangerren egiten ari den lana babesten.



Azken urte honetan gure lan-testuinguruetara egokitutako Garapenerako Hezkuntzako prestakuntzen ondoren sortutako ezagutza sistematizatu dugu, informazio-bilaketa errazteko eta eragin handieneko dinamikak partekatzeke.



Herritartasun globalari buruzko gure ikuspegitik eta haurren egoeraren inguruan dugun interesagatik elkarlanean aritzen gara Hogar Lerchundirekin "Tangerren gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden adingabeen eta familien gizarte-hezkuntzaren garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko laguntza" proiektuan. Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa izan du eta 80 bat adingaberen garapen integrala sustatu du gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen bidez (eskola-laguntza, balioetan, aisian eta denbora librean oinarritutako hezkuntza) eta haien bizi-kalitatea hobetzeko beste erakunde batzuekin koordinatuta familiarekin egindako esku-hartzearen bidez. Diru-baliabide gutxi, laguntzeko sare sozialik eza, enplegu ezegonkorra eta antzeko arazoak dituzten ama bakartiei eta familiei babesa ematen zaie, horien seme-alabei arreta eskainiz Eguneko Zentroan ordu eta premia desberdinen arabera, behar duten eskola-materiala emanez eta helduei orientazioa eta prestakuntza eskainiz. Gainera, sare sozialetan parte hartzen dugu gizarte-bazterketaren prebentzioa eta Tangerko biztanleen Giza Eskubidea betetzea bilatuz.





Elkarbanatuz Elkartearen IX. Jardunaldiak

Aniztasunaren eta kultura-arteotasunaren kudeaketak sortzen digun kezkatik abiatuta, eta laguntzen diegun pertsonen jatorri ugoriei esker, aurten "Zurrumurrurik ez" proiektuan jarri dugu arreta. Alderdi arduradun gisa jarri gaitu, geure aurreiritzien jakitun egin gaitu eta hausnartzera eta ikastera eraman gaitu proiektu horrek. Pertsonen arteko elkarriketara bultzatzen gaituen ikaskuntza da, berdin daukaguna bilatzeko: ulertzen ahaleginduz eta kontzientzia handiagoko guneak sortuz.

"Zurrumurrurik ez" estrategia globalari buruz daukagun ezagutza eta haren funtsa eta edukia zabaldu ahal izateko, honako hauek gonbidatu ditugu IX. Jardunaldietara: Dani de Torres Kontseilu Europarreko aditua, Hiri Adimendunen Espainiako Sareko (RECI) zuzendaria eta "Zurrumurrurik ez" proiektu globalaren sustatzailea; Ekain Larrinaga, 2013az geroztik "Zurrumurrurik Ez" proiektua sustatzen ari den Getxoko Udaleko immigrazio eta kultura-arteotasuneko teknikaria; eta Natalia Rivero, elParlante elkarteako proiektu-koordinatzailea. Elkarte horretan hezkuntza-komunikazioa lantzen dute hezkuntza formaleko eta ez-formaleko guneetan, kultura-arteotasuna eta generoa bezalako gaiak landuz ikus-entzunezkoetan oinarrituta.

Jardunaldietan parte-hartzea

- Euskadiko egoitza-bazterkerari buruzko 2. jardunaldia (Eusko Jaurlaritza eta Bilboko, Gasteizko eta Donostiako Udalak).
- Gizarte-hezkuntzako berrikuntzari eta ekintzari buruzko jardunaldia (UPV-EHU).
- "Bizitza duinerako etxebizitza egokia" jardunaldiak (Eguzkilore Fundazioa, Caritas Bizkaia eta Eusko Jaurlaritza).
- Etikari eta gizarte-zerbitzuei buruzko 1. Jardunaldia "Gizartean esku-hartzeko etika-batzordeak gizarte-zerbitzuetan kalitatea neurtzeko tresna gisa" gaiari eskainita (BFA, Gizartean esku-hartzeko etika-batzordea CEISGEHEB Bizkaia).
- Jardunaldia "poltsa ala bizitza: ekonomia eta bizitzaren arteko gatazkak eta irtenbideak (Reas Euskadi).
- Hatento jardunaldiak "Etxerik gabeko pertsonen aurkako gorrotzko delituak" (Hatento eta Zubietxe).
- Ongizate-estatua ahultzea eta 3S-ko (Sareen Sarea) erakundeen egitekoa.
- Biltzar Estrategikoa (EAPN Europa).
- Euskadiko hirugarren sektore soziala (gizarte zibil antolatua, gizarte-aldaketaren eragilea) Euskadiko hirugarren sektore sozialaren liburu zuriaren aurkezpena.
- "Esku-hartze integralerantz eta sareko lana Caixa Haurtzararen aldeko programan" jardunaldia ("La Caixa" Gizarte Ekintza).
- "Genero-indarkeriaren biktima diren seme-alabak" jardunaldia (Gizartegune, BFA).
- "Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren Bizkaiko Behatokiaren 2015eko Datuak" kontraste-jardunaldia (Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren Bizkaiko Behatokia).
- "Umeak eta nerabeak babesteko lege berriak: aldaketa nagusiak" jardunaldia (Arartekoa).
- Emakunde-Deustuko Unibertsitatearen jardunaldiak: Prebentzioa eta esku-hartzea askotariko desberdintasunak eragindako emakumeen aurkako bazterkeria- eta indarkeria-egoeretan

Komunitatearen parte-hartzea eta sareko lantaldea

- BesteBi elkarretaratzeko: etxerik gabeko pertsonen duintasuna aldarrikatzeko ekintzetan parte hartzea.
- Bilboko Udalak sustatutako Zurrumurrurik ez Estrategiari buruzko prestakuntza-saioak.
- Kalteberatasun-egoeran dauden emakumeen eztabaida-taldea, EAPN eta UPV-EHUrekin.
- EAPNko partaidetza-batzordea: lankidetzeta eta esperientzia-ekarpena lantaldean, Partaidetzaren II. Topaketan eta UPV-EHUko Komunitatearen Partaidetza masterrean.
- EAPNko haurtzaro-batzordea: haurrekin eta familiarekin esku hartzeko ereduari buruzko jokabidea diseinatu duen lantaldea.
- Harresiak Apurtuz-eko batzorde teknikoa.

Boluntarioak

Elkarbanatuzentzat, pertsonak partaidetza boluntarioaren bidezko konpromisoa izatea funtsezkoa da, proiektuei balioa ematen dielako eta berdintasuna eta solidaritatea sustatzen dituelako. Hezkuntza-ekintzen bidez, edo sentsibilizazio, aisia eta denbora libreko ekintzen bidez, 66 lagunek joan zen urtean egin zuten lan eskuzabal horrek mundu bidezkoago baten alde lan egiten lagundu du bere inplikazioari eta gogo handiari esker.

Aurtengo oinarritzko helburuetako bat boluntarioek gure proiektuetan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea izan da, partaidetza-bide berriak inplementatuz.

Elkarbanatuzetik eskertu egin nahi dugu joan den urtean parte hartu duten boluntario guztiengandik jasotako laguntza, haien konpromisoa eta lankidetzeta funtsezkoa delako gure lana ahalik eta ongien betetzeko.



JARRAIPEN EKONOMIKOAREN ETA ADMINISTRAZIOAREN ARLOA

Jarraipen ekonomikoaren zerbitzua

Kudeaketa-estilo etiko eta arduratsu baten alde egiten dugu lan, bai eta egoera ekonomiko eta finantzario orekatu baten alde ere.

Administrazio-zerbitzua

Gure administrazio-kudeaketari esker, eraginkortasunez antolatzen ditugu baliabide materialak, bai eta elkartearen kanpoko zerbitzuen baliabideak ere, elkartearen misioarekin bat datozenak. Halaber, administrazio-zerbitzuak hau egiten du:

- Kontsumo arduratsua eta baliabide materialak aurreztu daitezela sustatzen eta bultzatzen du; horretarako, ingurumen-irizpideak hartzen ditu kontuan.
- Harreman eraginkorra, horizontala eta lankidetzazkoa du hornitzaileekin.

Saila, ekitate-taldearekin batera, Berdintasun Planaren helburu eta ekintzen garapena dinamizatzen ari da. Plan hori 2012an eta 2013an egindako diagnostikotik eta Elkarbanatuzek esparru horretan egindako ibilbidetik sortu da. Plana modu parte-hartzailean egin zen. Lau urteko iraupena du (2015 – 2018) eta erakundearen berdintasun-printzipioa txertatzen eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna ezartzen lagundu nahi du, erakunde barnean nahiz erabiltzaileekin egindako esku-hartzeetan.


Planaren lehen urtearen inplementazioa positiboa izan da. 14 ekintzatik 10 gauzatu dira eta 4 garapen-prozesuan daude. Bestalde, areagotzen ari da langile guztiek planean duten inplikazioa eta gero eta gehiago ari dira haren edukiaz jabetzen.

Kalitate-programa

Arloa orobat arduratzen da elkartearen kalitate-programa kudeatzeaz.


- Prozesuen mapa baliatzen du.
- Jarduna bideratzen du, etengabe hobetzeko.

16 kalitate-prozesu ari gara garatzen progresiboki:



Kostu Errealaren Finantziazio-Iturriak

Datu horiek osatze aldera, kostu errealaren finantziazio-iturriak zein diren zehaztuko dugu, eta finantziazio-iturri horiek 2015an kostu errealaren zer ehuneko finantzatu duten adieraziko.



Kontu-Ikuskapenak

Elkarbanatuz elkarteak kontu-ikuskapenak egiten ditu, aldian-aldian egin ere, zenbait alderdi ebaluatzeko; hain zuzen ere, gizarte-eraginarekin, kontabilitate-kudeaketarekin eta elkartearen kudeaketan balio jakin batzuk integratzearekin lotutako alderdiak ebaluatzeko. Ebaluazio-mekanismo horiek bide ematen dute etengabe hobetzeko prozesuak garatzeko eta ezartzeko; eta, horretaz gainera, tresna apartak dira elkarte-proiektua serioa eta sendoa dela bermatzeko.

Kontu-Ikuskapen Ekonomikoa:


A-Zeta aholkulariek urteko kontuen ikuskapena egin dute, eta egiaztatu dute kontu horiek zehatz-mehatz adierazten dutela elkartearen finantza-egoera.

Kontu-Ikuskapen Soziala:

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) eginiko kontu-ikuskapen sozialari esker, 2015an, gure elkartearen eraginkortasun soziala eta helburuekiko jokabide etikoa ebaluatu ditugu, gizarteari eta elkartasunari begira lortutako emaitza hobetzeko asmoz.

Batzorde Etikoa Txostena:

Elkarbanatuz elkarteko Etika Batzordeak txosten bat egin du urtero, eta, txosten horretan, Etika Kodea zenbateraino sartzen den elkartean ebaluatzeko.



Elkartearen 2015ko urteko kontuak aurkeztuko ditugu. Horiek egiteko, indarrean dauden kontabilitate-printzipioak eta -arauak aplikatu ditugu. Bilakaera hobeto ulertzeko, 2014ko eta 2015ko ekitaldietako zifrak erakutsiko ditugu.

EGOERA-BALANTZEA 2015ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

AKTIBOA	2015	2014
A) AKTIBO EZ ARRUNTA	64.667,29	81.464,55
I. IBILGETU UKIEZINA	0,00	0,00
Aplikazio informatikoak	2.060,93	2.060,93
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua	-2.060,93	-2.060,93
III. IBILGETU MATERIALA	49.686,74	64.934,00
Makineria	6.115,37	6.115,37
Bestelako instalazioak	12.497,60	12.497,60
Altzariak	63.421,18	61.603,91
Informazio-prozesuetarako ekipoak	44.219,12	41.177,18
Eraikinetako inbertsioak	42.575,40	42.575,40
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	-119.141,93	-99.035,46
VI. EPE LUZERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK	14.980,55	16.530,55
Epe luzerako finantza-inbertsioak	6.438,00	6.438,00
Epe luzerako fidantzak	8.542,55	10.092,55
B) AKTIBO ARRUNTA	204.042,89	257.840,48
II. JARDUERAREN ERABILTZAILEAK ETA ZORDUNAK	58.597,76	47.153,70
Jardueraren beraren erabiltzaileak	58.597,76	47.153,70
III. MERKATARITZA-ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTUAK	120.349,63	194.334,77
Administrazio Publikoak	120.349,63	194.334,77
VI. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	2.226,28	1.952,10
Aurrez ordaindutako gastuak	2.226,28	1.952,10
VII. EFEKTIBOA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	22.869,22	14.399,91
Kutzak	3.229,36	3.313,47
Bankuak eta Kreditu Erakundeak	19.639,86	11.086,44
AKTIBOA, GUZTIRA	268.710,18	339.305,03

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2015	2014
A) ONDARE GARBIA	75.973,05	75.419,73
A-1) FUNTS PROPIOAK	75.973,05	75.419,73
II. ERRESERBAK	-15.304,25	-15.304,25
Borondatezko erreserbak	-15.304,25	-15.304,25
III. AURREKO EKITALDIEN EMAITZAK	90.723,98	70.894,40
Soberakina	90.723,98	70.894,40
IV. EKITALDIAREN SOBERAKINA	553,32	19.829,58
Ekitaldiaren emaitza	553,32	19.829,58
C) PASIBO ARRUNTA	192.737,13	263.885,30
II. EPE LABURRERAKO ZORRAK	119.000,00	200.297,52
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	34.000,00	113.297,52
3. Epe laburrerako beste zor batzuk	85.000,00	87.000,00
V. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK	65.737,13	57.587,78
1. Hornitzaileak	6.906,70	8.705,68
Hornitzaileak	6.906,70	8.705,68
2. Beste hartzekodun batzuk	58.830,43	48.882,10
Ordaindu gabeko ordainsariak	4.428,64	5,49
Herri-ogasuna, hartzekoduna kontzeptu fiskalengatik	29.497,77	26.298,31
Gizarte -segurantzaren erakundeak, hartzekodunak	24.904,02	22.578,30
VI. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	8.000,00	6.000,00
Sarrera aurreratuak	8.000,00	6.000,00
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	268.710,18	339.305,03

GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2015ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

	2015	2014
A) EKITALDIAREN SOBERAKINA		
1. Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioagatik	1.424.340,29	1.348.110,51
a) Bazkide eta erabiltzaileen kuotak	100.109,08	89.414,48
b) Kolaboratzaileen ekarpenak	12.976,20	14.551,20
c) Ekitaldiari egotzitako diru-laguntzak	1.311.255,01	1.244.144,83
d) Zerbitzu-prestazioak	0,00	0,00
2. Laguntza monetarioak eta bestelakoak	-11.139,29	-1.952,50
5. Errentamenduak eta kanonak	-113.039,13	-123.622,97
7. Langile-gastuak	-1.075.819,17	-954.310,12
8. Jardueraren beste gastu batzuk	-202.549,15	-231.509,99
9. Ibilgetuaren amortizazioa	-20.285,87	-20.626,46
12. Hondatzea eta ibilgetuak besterentzearen emaitza	-119,60	-180,69
12 bis. Beste emaitza batzuk	2.093,56	8.995,85
A-1) JARDUERA PROPIOAREN SOBERAKINA	3.481,64	24.903,63
13. Finantza-sarrerak		
14. Finantza-gastuak	-2.928,32	-5.074,05
16. Kanbio-diferentziak		
A-2) FINANTZA-SOBERAKINA	-2.928,32	-5.074,05
A-3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA	553,32	19.829,58
18. Etekinen gaineko zerga		
A-4) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAREN SOBERAKINENA		
B) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK		
1. Jasotako diru-laguntza publikoak	1.089.290,37	1.012.625,70
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	218.157,17	228.019,85
B-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK	1.307.447,54	1.240.645,55
C) EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATUAK		
1. Jasotako diru-laguntza publikoak	-1.089.290,37	-1.012.625,70
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	-218.157,17	-228.019,85
C-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATZEAGATIK	-1.307.447,54	-1.240.645,55
D) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK		
E) IRIZPIDE-ALDAKETENGATIK EGINDAKO DOIKUNTZAK		-15.304,25
F) ERROREENGATIKO DOIKUNTZAK		
H) BESTE ALDAKETA BATZUK		
I) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIZKO EMAITZA EKITALDIAN	553,32	4.525,33

Proiektuen KOSTU ERREALA eta gastu orokorrak:

Elkartearen kostu ekonomikoa "kostu erreal" baino pixka bat baxuagoa da, honako arrazoi hauek direla eta:

- Oinez Sarea programako Bidean proiektua eta Ondoan proiektua dauden bi etxebizitza doan lagatzea.
- Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiak.
- Langileak. Izan ere, kontuan hartu behar dugu boluntarioek onginaldi hutsez egindako lana (laguntza eta administrazio- eta kontabilitate-lanak). Kalkuluen arabera, 110 ordu lan egin dute, gutxi gorabehera.

Boluntarioei eta diruzkoak ez diren ekarpenei dagozkien kostuen gorakada:

Errentamenduak eta kanonak ⁽¹⁾	21.600,00
Janaria, garbiketa-tresnak eta bestelakoak ⁽²⁾	406,31
Langile-gastuak ⁽³⁾	1.560,00
GUZTIRA	23.566,31

(1) Pisu bakoitzeko hileko alokairua Bidearen kasuan 600 €-ko eta Ondoaren kasuan 1.200 €-ko balioztatzen da.

(2) Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiak 406,31 €-an balioesten dira.

(3) Langile-gastuak: urteko 110 ordu, gutxi gorabehera.

LANKIDETZA-SAREAK



Sarean lan egiten dugu, hirugarren sektoreko entitateen elkarlana sustatuz eta helburu komunak lortzeko informazio-fluxu aberasgarria bultzatuz. Horregatik, parte hartzen jarraitzen dugu kide garen sare hauen zuzendaritza-batzordeetan, lantaldeetan, batzarretan, kanpainetan, ekimenetan eta abarretan:



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea



Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte



Darok Bizilekua Izatearen eta Aterpe bakoen aldeko Plataforma



Etorkinei laguntza emateko Euskadiko GKE-en koordinakundea



Ekain Sarea - Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak



Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sarea




Proiektuak eta laguntzako etxebizitzak dituzten entitateen federazioa



Zero Pobrezia Kanpaina



Fiare Proiektuari Laguntzeko Euskal Sarea




KOMUNIKATZEKO BIDEAK

www.elkarbanatuz.org

QR kodea:




 <http://www.facebook.com/elkarbanatuz>

 @elkarbanatuz

 <http://www.youtube.com/user/elkarbanatuz>

Jarrai iezaguzu sare sozialetan:



Ohar-taula digitala:

Bazkideentzat eta langileentzat:



La Salle ARLEP barrutia:



Aldizkari elektronikoak:



Halaber, egin bat gurekin gizarte-mobilizazioaren bidez:



IZAN GURE LAGUNTZAILE

Egin zaitez boluntario

Erakundeari laguntzeko modu asko daude. Eskaintzen dizkizugunetako bat boluntario izatea da. Elkarbanatuzen hainbat proiektutan lagun dezakezu eta, besteak beste, hezkuntza-ekintzetan, aisiakoetan, bizikidetzakoetan, laguntza pertsonalekoetan eta enplegurako prestakuntzakoetan babes gaitzakezu.

Egin ekarpen bat

Dohaintza bat

Gure lana egiteko, tresna batzuk behar ditugu (ekipamendua, altzariak, hainbat gauza...), erabiltzeko moduan daudenak. Baliteke zuk soberan duzun hori izatea guk une honetan gure proiektuetako batean behar duguna. Hala den jakiteko, mesedez, jo ezazu guregana.

Etxebizitza edo lokal baten erabilera uztea

Ba al duzu hutsik dagoen lokal, bulego edo etxebizitzaren bat? Haren erabilera uzten badiguzu, laguntza itzela emango diguzu gure misioa betetzeko, erabiltzaile gehiagori arreta emateko aukera emango baitiguzu.

Gure proiektuetarako laguntza ekonomikoa

Aldiroko ekarpen ekonomikoak egiten dizkigute gure laguntzaileetako batzuek, eta, ekarpen horien bidez, premiazkoa duten egonkortasuna ematen diete gure proiektuei. Ekarpen ekonomiko puntualak egitea da gure jardueri laguntzeko beste aukera bat.

Interesatuak honela jaso dezakete informazioa

- Gure webgunearen bitartez eta kontaktuetarako formularioez: www.elkarbanatuz.org
- E-mail bidez: voluntariado@elkarbanatuz.org edo/eta colabora@elkarbanatuz.org
- Telefonoz: 94 475 76 13

